


Noaia!!



Auzotarrak, Santueneko
festetako protagonistak



Luis Aranalde
"Mimatu egin naute
Aginagan"

IBARRI ONDOK ELKARTEAK SANESTEDION
JAIETAKO PLATERA TIARKEJAN
LAGUNDU ZUTEN GUZTIEI
ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIE

- Arruti Ardoak
- Irigoien Erretegiak
- Ameri Karrozeriak
- Manterola Txitxardinak
- Usurbil Ardoak
- Alamandegia Estankoa
- Zabala Anaiak
- Tragoxka
- Manterola Gasolindegia
- Berasategi Akeitak
- Irwin Sagardategia
- Kas Freskagarriak
- Fribin Frigorifikoak
- Aizpurua
- Ilunbe Sagardategia
- Saltxipi Jatetxea
- Errozpi Elkarteak
- Urtinea Lorategia
- Ingemar
- Telesforo Ardoak
- Andazpe Elkarteak
- Kutxa
- Etxebeste Ardoak
- Zumeta Jatetxea
- Eizmendi
- Mendiola Kirolak
- Estanko Usurbil
- San Estebango Jai Batzordea

ESKERRIK ASKO!

**Zuen
publizitatea
hemen**

☎ 943 360 321
publizitatea@noaia.com

euskara ikasi
æk ren eskutik

**ETUMETA æk
EUSKALTEGIA**

- Maita guztiak
- EGA
- Alabolaizoa
- Hizkuntza perflak
- Euskara agiriak

Matrikula ordutegia

11.00-13.00 • 18.00-20.00

**USURBILGO UDALAREN
LAGUNTZAZ**

**Kale Nagusia, 45 behean
USURBIL • ☎ 943 37 20 01**

Badok Amairu !!

Unai Aizpurua: "Inguruko laguntasunik gabe ezin naiz bizi"

Argentinara egindako bidaia barruan darama. Bataplanekeko gau hura ez du ahaztu. Lagunak beti gogoan ditu. Unai Aizpurua dugu.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.

Txuleta ederra, sagardoz lagundua.

2. OHITURA TXARREN BAT.

Pazientzi gutxi izatea. Gauzak ondo eta berehala egitea gustuko dut.

3. ZER GORDETZEN DUZU SAKELAN?

Mugikorra, diru zorroa eta giltzak.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?

Neronengan. Zertarako aldatu?

5. ZERI DIOZU BELDURRA?

Astelehen goizeko iratzargailu soinuari.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.

Asteburua nirekin igarotzen dutenak.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...

Inguruko laguntasunik gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA

Bataplanen trikitixa jotzea.

9. LIBURU BAT.

"Kutsidazu bidea Ixabel".

10. FILM BAT.

"Forrest Gump".



11. LEKU BAT.

Iguazuko ur jauziak.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.

Benta taberna.

13. URTARO BAT.

Udaberria.

Noaual

NOAUAL Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaual.com / www.noaual.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaual.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaual.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaual.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaual.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUALK IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATUKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUALK ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

LUIS ARANALDEREKIN SOLASEAN _____ **6. OR.**

GARAI BATEKO NAFARROA _____ **8. OR.**

SANTUENENKO JAIK HEMEN DIRA _____ **10. OR.**

Asteburu honetan jai-giroa izango da nagusi Santuenean. Larunbatean, Josune Aranburu arituko da herri-afarian kantari. Eta gauez, Larra Dj.



36KO GERRARI BURUZKO JARDUNALDIK _____ **12. OR.**

ERREBOTEAK BIZIRIK JARRAITZEN DU _____ **15. OR.**



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herria!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ARITZ GORRITI

I-11, bost urte eta hamaika desgrazi

New Yorkeko dorre bikiak eta Washingtoneko Pentagonoa erasotu zituztenetik bost urte igaro dira. Egun gutxiren buruan, Osama Bin Ladenen bila hasi zen George W. Bushen gobernuak. Hura jo zuten erruduntzat. Aurkitze bide horretan, Ameriketako Estatu Batuek, aliatu izan zituzten munduko beste herrialde batzuekin batera, Afganistan izan zuten erasoan jomuga 2001eko udazkenean eta Irak, 2003ko udaberrietik aurrera. Abian zen "Terrorismoaren aurkako operazioa" deitu ziotena.

Irakiarrek edota Afganistaneko bizilagunak "demokratizatu" nahi zituzten. Eta zer lortu dute? Bertako herritarrek hil, bizi-rik jarraitzen dutenak egoera miserableago batean utzi, eta herrialde horien arteko egoera politikoa asko zaildu dute. Atxiloketak, kartzela ezkutuak... Inguru haietako herritarren irudia zikindu nahi izan dute inbaditzaileek. Eta ezin ahaztu, herri bat inbaditzeko publikoki gezurra esaten denean, Iraken zeuden eta inondik ageri ez diren arma famatu haiek kasu, horren azpian dagoen egia; besteak beste, behin baino gehiagotan aipatu diren interes ekonomikoak.

Gobernu estatubatuarrek eta bere aliatuek beldurraren propaganda ederki hedatu nahi izan dute bazter guztietara, atentatu mehatxuaren argudioa baliatuta. Film bateko pertsonaia

onak eta gaiztoak, euren ustetan, nor diren ongi desberdindu eta epaitu dituzte.

Alarma egoera asko piztu dituzte. Uda honetan, Londresko aireportuan gertatu zena kasu. Alarma sortzeko alarma egoerak ote? Hainbat herritarren aurkako neurri prebentibo ilegal ugari hartu eta aplikatzeko aitzakia itxura du. Askatasun eta eskubide urraketa askoren adibide bat gehiago.

Geroago etorri dira, M-11 edota U-7 egunak. Batzuek aipatutako herritar eta herrien aurka egiten diren erasoan aurrean atentatu egileek duten erantzuteko modu gisa ikusi dute. Beste batzuen hitzetan, "terrorismo" ekintza soilak dira. Baina beste egoera asko bezala, egun beltz horiek saihestu zitezkeen. AEBen inbasio eta bestelako erasoek kalte gehiago eragiteko baino ez dute balio izan.

Bush eta bere jarraitzaileentzat, I-11ren benetako arrazoiei irtenbidea aurkitzea baino gerra giroan bizi nahi dutela dirudi. Boterea kentzeaz gain, inork inoiz hartuko al du politikari horien aurkako bestelako neurririk?

Eta ahaztua nuen. Bost urte igarota, non da Bin Laden? Milioika dolar eskaintzen zituzten bera harrapatzearen truke. Nor den ere ahaztu zaie dagoeneko. Honez gero, horretarako gordeta zuten dirua inbasio prestatetetan xahutuko zuten.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas

Ika-mika

Alternatibak daudelako "Errausketarik ez"

Politikoak bere ohiturei jarraituz, azaletik ibiltzen dira, hitz egin eta hitz egin, baina mamiari heldu gabe. Nahiz eta askotan errepikatu, errausketaren arazoa ez dela erraustegia non kokatzen den, baizik eta errausketa bera dela arazoa, gure politikoei ezin zaie hori ulertarazi. Gainera eskualdean dituzten tresna guztiak erabiltzeko prest daude, bere kontraesanak eta alderdikeriak salatzen dituzten jendearen aurka. Adibide gisara Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Koordinadorearen izena zikintzeko egindako ahalegina, ekainaren 22an Donostiako udalbatzako aretoan gertatu zenarengatik. Hemen ere mamiak (zer bozkatu zen, nola bozkatu zen, ze trabak jarri zizkieten jendearen areto-risteko) ez du garrantziarik, eta eurek sorrarazitako jendearen haserrearen da benetako albisteak. Horren adierazgarri, Donostiako udalean errausketaren alde agertu ziren alderdi guztiak, berriro ere bat egin dute. Publikoki barkamen bateratua eskatu ordez han izandako jarrerarengatik, hau da, jendearen partehartzeari eragozpenak jarri, eta ezkutuan erabaki jende aurrean lotsa ematen ziena, auzitegitara jo dute

bertan gertatu zena, Josetxo Ibazeta eta Iñigo Baldari leporatu nahian. Koordinadoreak egoera hau salatzeaz gain, deialdia egiten du datorren irailaren 18an izango den epaiketa horretara azaltzeko, bi lagun horiek babesteko. Ez da lehenengo ahalegina koordinadora politizatzen saiatu direna. Batzuetan denok alderdi politiko batekoak ginela esan digute. Beste politiko ospetsu batek berriz "Anti-Patxis" deitu digu. Ba ez, jakin dezatela politikari ospetsuek, Koordinadora barruan inori ez zaio la ez afiliatorik edo tendentzia politiko zehatzik eskatzen. Gai honetan lanerako gogoaz azaltzen duen edonork, atek irekiak dauzka. Gainera harrotasunez esatea daukagu, tendentzia guztietako jendea daukagula. Zaborrekin bezala, politikoak birziklatu beharra dago. Orain arte sarritan traba egiten zutenak "biolentoen" artean sailkatuz baztertzen zituzten, baina garai hauetan aitzakia hori ere ezin dute erabili. Ikusitakoak ikusita, berriro ere azaleko gaiekin albisteak prestatzen ari zaizkigu. Zaborren kudeaketari irtenbidea bilatu ordez, ez egin eta ez beste egiten utzi. Beldur dira han edo hemen zaborra kudea-

tzeko modu alternatiboak jarri ezker, erraustegiaren beharra suntsitu egingo dela. Hala ere beraien seriotasuna erakutsi nahian, "norabide gabeko erraustegiaren bidaia" pelikularen beste atal bat prestatua dute. Oraingoan aurreratu egin gara, kapi-tulu honen albisteak ematen. Hainbat alditan bezala, audientzia gehien izateko indar mediatiko guztiak prestatu baina lehen nola plazaratu dugun, agindu zehatza eman dute, albisteak ezkutatu izan dadin. Horrela komunikabide batzuen jarrera salatzen dugu, batez ere ETBrena. Nahiz eta prentsaurrekoan egon, ez du oraindik ezertxo ere argitaratu. Hau da bizi dugun demokrazia, eta horrelakoa izan da lanerako modua PIGRUG guztia egiteko. Diputazioko eta Mankomunitateko politikariak, harrotasun guztiaekin jarraitzen dute, eta beren proposamenek ez dute asmorik egun dagoen legedia betetzeko. Legeak herritar soilentzako eginak dira, baina politikariak guztien gainetik daude, komunikabideak beren jokoan erori ezker behintzat.

Imanol Azpiroz, Zubietako alkate pedaneo eta Gipuzkoako koordinadorako kidea

Mari Karmen Mitxelenak Errusiatik ekarri du haurra «Jendez inguratuta egonda gozatu du»

Maria Tatarinseva ekainaren 20ko goizaldean iritsi zen Gasteizko aireportura. Volgogradetik (Errusia, lehengo Stalingrado) etorri da, Usurbilgo (Gipuzkoa) familia batekin uda pasatzera. Mari Karmen Mitxelenena ama hartzaileak esan duenez, lehenengo bost egunak «gogorrak» izan ziren, baina hortik aurrera oso gustura egon dira.

Mariak 9 urte ditu eta Volgogradeko umezurztegi batean bizi da. Aita 2000n hil zen eta amari ez diote alabarekin egoten uzten. Aurten etorri da lehenengo aldiz udako familia hartzaile batera; horregatik, lehenengo bost egunak nahiko gogorrak izan ziren bai Mariarentzat eta baita Mari Karmen Mitxelenaren familiarentzat ere. «Normala den bezala, hasieran ez zuen gurekin etorri nahi», dio Mitxelenak.

Lehenengo bost egun zail horietan hizkuntza zen arazoetako bat, baina dagoeneko euskaraz nahiko ondo moldatzen da Maria. Eta zalantzaren bat sortzen denean, 24 ordutan martxan dagoen telefono bat dute errusieraz hitz egiten duten monitore batzuekin harremanetan jartzeko.

Haur bat hartu duten lehenengo aldia da Mari Karmen eta bere senararentzat. Aurretik Saharako haur bat ekartzekotan egon ziren, baina hainbat oztopo zirela medio, ezin izan zuten ekarri. Aurten, Sarai Lizaso alabak behin eta berriz eskatu die udan haur bat hartzeko. «Baina udan ere lan egiten dudanez goizetan berak zaindu beharko zuela esan nion», azaldu du Mitxelenak. Eta hala egon dira uda osoan, goizean normalean Mari Karmenen alaba egoten zen Mariarekin.

Aurrera eta atzera ibili dira Maria Euskal Herrira etorri zenetik, denetik ikusteko aukera eman diote haur erru-



MARIA TATARINSEVA, ASKATASUNA PLAZAN JOLASEAN (ARGAZKIA: JON URBE).

siarrari. Cabarcenon (Espainia), Urban, Torreviejan (Espainia) eta estropadak ikusten ere izan dira. Mitxelenaren arabera, Mariak ederki pasatzen du edozein tokitan, hori bai, protagonismoa berari eskaintzen bazaio. Gainera, «jendez inguratuta dagoenean gozatu egiten du». Eta Mariak hori dena baieztatu egiten du behin eta berriz, ondo pasatzen ari dela esanez.

Izaerari dagokionez, Mari Karmenek «oso mugitua eta azkarra» dela egiaztatu du bi hilabeteen. «Hemengo haurrak baino buruaskiagoa» dela pentsatzen du ama hartzaileak, arropa zikintzen duenean bera saiatzen da garbitzen, dutzatzeko ere ez du inoren laguntzarik behar. «Umezurztegiko diziplina nabari zaio».

Gasteizko aireportura motxila soil batekin iritsi zen Maria, jantzita zera-man arropa eta ezer gutxi gehiago. Beraz, hemen arropa erosi behar izan zioten segituan. «Alde horretatik nire senitarteko eta lagunei eman didaten laguntza eskertu nahi diet». Izan ere, Mariaren bidaian 900 euro gastatu zituen Usurbilgo familiak, «hilabeteko soldata ia osoa», eta arropetan gastatu

beharrekoa ere asko izango zen gertuko laguntzarik jaso izan ez bazuen.

Haur txikiak asko gustatzen zaizkio Mariari, parkean gustura ibiltzen da jolasean hemengo lehengusu txikiekin. Mendian, ordea, zuhaitzetatik fruituak hartu eta jatea asko gustatzen zaio. Mahaian jaten eseri eta lehenengo egunetan ia mahai gaineko guztia hartzen saiatzen zen, gero ez zuen dena jaten, «hainbeste janari ikusita itsutu egiten zen», Mitxelenak azaldu duenez.

Jada Volgogradeko umezurztegira itzuli da Maria. Mari Karmen Mitxelenak datorren urtean ere ekartzen saiatuko dela pentsatzen du, «etxeko beste bat bezala da». Telefonoaren bitartez ere kontaktua mantenduko dute haurrarekin. Neguan 15 egunerako ekartzeko aukera ere badute, baina denbora gutxiegi iruditzen zaio hori Mitxelenari; izan ere, «bidaian bakkirik hiru egun pasatuko ditu haurrak». Sarai ahizpa hartzaileak ere datorren urtean ekartzea espero du, udan txakurra eta katua bezala ibili badira ere, bere ahizpa txikia izan da uda osoan.

Gero arte, Luis

Aginaga utzi eta Ibaetako parrokian arituko da aurrerantzean

Azken egunotan askotan entzungo duen agurra da titular nagusian bildu duguna. Aginagako apaiza izan da azken hamar urteotan, baina laster Ibaetako parrokiarantz arduratu beharko du. Agurra samurragoa izan dadin, Aginagako lagunek omenaldi modukoa antolatu dute. Elkarrizketa honen bidez, eskerrak eman nahi dizkie denei: “hamar urteotan elizkoien eta elizkoi ez direnen kolaborazioa guztizkoa izan dut”.

NOAUA! Urte batzuk egin dituzu Aginagan. Laster bukatuko da, ordea, zure zeregina. Zer dela eta utziko dituzu Aginagako erretore-lanak?

Luis Aranalde. Hamar urte eta erdi egin ditut; 1996ko otsailaren 25ean etorri nintzen erretore gisa. Apaiz eskasia dela eta, aginagatarrek bazekiten luzaro ez nintzela egongo. Donostiako Ibaetan ere laguntzen nion bertako erretoreari eta erretiroa hartu duenez, ni jarri naute bere ordezko. 7-8 mila biztanle badiu parrokia horrek; beraz, lanaz osatuko naiz. Zorionez, ekipo on batez inguratuta egongo naiz eta horrek erraztuko dit nire zeregina.



“IA EZ NINDUTEN EZAGUTZEN, BAINA HALA ERE, ONGIETORRI BEROA EGIN ZIDATEN”, AITORTU DIGU LUIS ARANALDEK.

N. Aginagara iritsi zinenean, zer nolako harrera izan zenuen?

L. A. Oso ona; ia ez ninduten ezagutzen, baina halere, ongiatorri beroa egin zidaten. Erretore gisa sarrera egin nuenean, meza ondoren lagun batek sozietatera eraman ninduen txakolin tragotxo bat edo beste hartzera. Mahai

batean ikusi nituen hiruzpalau gazte eta batek esan zidan: “Ondo egin duk hona etortzearekin, gu ez gaituk hara (elizara) joango eta”. Hara ongiatorri sanoa, jatorra. Segituan egin nintzen elkarteko kide.

Aldameneko orrian jarraitzen du →

Lehen meza eta gero

“Erretore gisa sarrera egin nuenean, meza ondoren lagun batek sozietatera eraman ninduen txakolin tragotxo bat hartzera. Mahai batean ikusi nituen hiruzpalau gazte eta batek esan zidan: “Ondo egin duk hona etortzearekin, gu ez gaituk hara (elizara) joango eta”. Hara ongiatorri sanoa, jatorra. Segituan egin nintzen elkarteko kide”

Apaizaren papera

“Gizartean inplikatzeko ez den apaizak ez du ezer ulertu ebanjelioaren mezuaz; historian zehar norbaitek hartu badiu konpromiso serioak bere garai-kideekin, Jesus nazaretarra izan da. Beraz, kristauaren betebeharrak nagusia ez da elizara joatea, mundu honetan anaitasun gehiago sortzen saiatzea eta bidegabekeria guztien aurka borrokatzea baizik”.

Eskerronez

“Eskerronezko hitzak besterik ez ditut aginagatarrentzat. Ilusioz beterik etorri nintzen duela hamar urte eta ilusio hori itzal ez zedin lagundu didate. Elizkoien eta elizkoi ez direnen kolaborazioa guztizkoa izan dut. Alde guztietatik begiratuta, mimatu egin naute”.

← Aldameneko orritik dator

N. Aginagan egin duzun lanaren balorazioa egiterakoan, zer da bereziki nabarmendu nahiko zenukeena?

L. A. Hiru gune landu ditut batik bat:

A. Zenbait errito, tradizio, ohitura... nire ustez nahiko zaharkiturik zeuden, beste garai bateko eran praktikatzen zituzten eta berritu nahi izan ditut, edo zentzu berri bat eman nahi izan diet; adibidez: gurutze bidea, errosarioa, zenbait kanturen letrak... Hasieran, batzuk, harritu egin ziren, baina, gero, kolaborazioa besterik ez dut izan. Erljio praktika gaurkottzen ez bada, erritoak fosil huts bihurtzen dira. "Harriaren kontrako meza emango al duzu?" entzun nuenean lehen aldiz, flipatu egin ninduen. Zentzu berri bat ematen saiatu nintzen horrelako ekintzei. Erljioaren alderdi magikoa alde batera utzi eta ebanjelio liberatzailea hots egiten ihardun naiz.

B. Gurasoen inplikazioa bultza dut katekesia arloan batez ere. Haurren eta gaztetxoaren kristau heziketa gurasoen partehartzerik gabe fartsa hutsan gelditzen da. Meza familiarak, elkarteko aitortzak, bilerak..., zentzu horretan burutu ditugun ekintzetako batzuk dira.

C. Musikan aditu samarra naizenez, haur eta gaztetxoaren heziketan garrantzia handia eman diot esparru hau lantzeari. Musikak sentimenduak fintzen laguntzen du, tolerantziatzko jarrerak sortzen ditu; hizkuntza unibertsala da gainera. Gogoan dut igande batean nola etorri zitzaizkidan mezetara frantses lagun batzuk; meza amaitu ondoren batek esan zidan: "Luis, malkoak atera zaizkidak gaztetxoek jo duten pieza entzutean. Hunkigarria izan duk". Kanta berriak, txirulekin (bat trabesekoa) irakatsi dizkiedan piezak (Beethoven, Bob Dylan, euskal melodi zaharrak...) helburu hori izan dute.

Irailaren 16an, agurreko ospakizuna

Lehenik eta behin, elizkizunean bilduko dira Luis Aranalderekin lagunak. 19:30ean hasiko da elizkizuna. Ondoren, afaltzeko elkartuko dira Aginaga sagardotegian (afarian parte hartzeko alde aurretik izena eman behar da Eiza dendan).

Inaxio Agirre apaizak beteko du Luis Aranalderekin tokia

NOAUA! Apaiz lanetan ez ezik, bestelako jardueretan ere ikusi zaitugu: literatur lehiaketan epaimahaikide lanetan, jaietako pintura lehiaketan sariak banatzen, astekari honetan iritzi-emailerik... Gizartean inplikatzeko garrantzitsua da zuretzat, ezta?

Luis Aranalde. Gizartean inplikatzeko ez den apaizak ez du ezer ulertu ebanjelioaren mezuz; historian zehar norbaitek hartu baldin baditu konpromiso serioak bere garaikideekin, Jesus nazaretarra izan da. Beraz, kristauaren betebeharrak nagusia ez da elizara joatea, mundu honetan anaitasun gehiago sortzen saiatzea eta bidegabekeria guztien aurka borrokatzea baizik. Herri mailan antolatutako diren ekintzetan parte hartzen saiatu naiz neurri xumean bederen.

N. Zure ordezkaria nor izango den jakinago duzu, nolako izango da Aginagako apaiz berria?

L. A. Hasteko, gaztea. Inaxio Agirrek 42 urte bete berriak ditu, beraz, su eta gar; pastoral lanetan nik baino urte gehiago daramatza, nahiz eta ni baino askoz gazteagoa den. Jendearekin oso erraz kontaktatzen du eta hori berme edo abal garrantzitsua da edozein lanetan ere. Eta, azkenik, gizon apala da; koa litate edo ezaugarri hori funtsezkoa da edozein postutan zer bait interesgarria egin nahi baduzu.

N. Ze aholku emango zenioke zure ordezkariari?

L. A. Alde batetik, kolaborazioa eska diezaiela aginagatarrei. Nirekin beti prest egon dira eskatu dieten arlo guztietan parte hartzeko. Herritarren inplikaziorik gabe, ezer gutxi egingo du. Apaizak talde baten animatzaile izan behar du,



BERE ORDEZKOA GIZON XUMEA DELA ESAN DIGU LUIS ARANALDEK.

sustatzaile. Hori badaki Inaxiok. Eta bestetik, xumea dela esan dudanez, entzun ditzala errespetoz, adeitasunez, jendearen iradokizunak eta batzuetan kritikak. Hauek, konstruktiboak diren neurrian, lagundu besterik ez digute egiten.

N. Amaitzeko, esker modura, zer esango zenieke aginagatarrei?

L. A. Eskerronezko hitzak besterik ez ditut aginagatarrentzat. Ilusioz beterik etorri nintzen duela hamar urte eta ilusio hori itzal ez zedin lagundu didate. Elizkoien eta elizkoi ez diren kolaborazioa guztizkoa izan dut. Alde guztietatik begirata, mimatu egin naute. Lagun zahar batek esaten dit: "Luis, tú déjate querer", eta hori egin dut nik, maita nazaten utzi. Jakin dezatela aginagatarrek, nire lan berriak astia ematen didan neurrian, laguntzeko prest egongo naizela.

IMANOL UBEDA

Garai bateko Nafarroa, Sutegin ikusgai

Nafarroa: Euskal Estatua. Izen hori darama astelehenean, irailak 18, Nafartarrak Kultur Taldeak antolatuta zabalduko den erakusketak. Sutegin ipiniko dituzten informazio panelen bidez, Nafarroaren historian barneratu ahal izango gara. 779. urtean izan zen Orreagako gatazkatik hasita, mila urtetik gorako historia biltzen dute bertan erakusgai diren testu eta argazkiek. Atalka, foruak abolitu ziren garaira arte, XIX. mende amaierara, hurbilduko gara. Antolatzaileen esanetan, erakusketa ibiltaria izateko asmoz sortua da. Herriko kultur taldeak Elkartasuna Etorkizuna jaialdiaren bosgarren edizioari begira, eskaintza indartu asmoz antolatu duen ekimena dugu. Erakusketa hilaren 30era arte izango da ikusgai Sutegin. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 18:00-20:00. Larunbatetan, 12:00-14:00.

Euskaldunak nafar, nafarrak euskaldun

Antolatzaileen esanetan, “Europako herri zaharrena eta gure herriaz gutxienak dakigunak gara”. Horregatik, asmoa memoria historikoa berreskuratzea da.

Erakusketan, euskaldunek sortutako lurraldearen inguruko informazioa aurkituko duzue. “Euskaldunek Estatu bat sortu zuten: Nafarroa”. Nafarroak izandako adierazgarritasuna. “Mila urtez baino gehiagoz Estatu honek independentzia adierazi izan du, eta nazioarte mailan Euskal Herriaren presentzia gauzatu. Honek, euskarak eta beste kultur balore batzuek, baita euskal gizarteak berak ere, gaurdaino bizi izatea ahalbidetu du”. Euskal gizartearen izaerak duen

garrantzia. “Euskal gizartea herri bat baino gehiago da. Bere erakundeak izan ditu, moneta propioa, bere izaera, bere gizarte egitura ezberdindu, bere kultur eta lan balioak...”. Gaurko errealitateari erreferentzia egiten dion informazioa. “Gaurko herrialdeek, esparru autonomo gisa, ez dute berezko jatorririk; behin eta berriz gertatutako inbasioek lapurtutako lurralde zatiak dira”. Euskaldun eta nafar izaeraren arteko lotura. “Euskaldunak, politikoki, nafarrak dira herritartasunez. Nafarrak, hizkuntzaz, euskaldunak.”

Testu bidezko informazioa osatzeko, bestelako material osagarria izango da; hala nola, mapak edota argazkiak. Tartean hiru minutuko bideo bat ere ikusgai izango da. Gazteluak hizpide dituen. Amaiur, Biasteri edota Oliteko eraikinak ikusteko aukera izango da. Eta egun desagertuta dauden beste batzuk.

Gaiari buruzko informazio gehiago eskuratu nahi baduzue, bertan ipinita egongo den mahaira joan besterik ez duzue. Bertan informazio orri eta liburuak aurkituko dituzue.

Astelehenean irekiera ekitaldia

Irailaren 18an astelehenez zabalduko da erakusketa. Bideo emanaldi bat eskainiko da irekiera ekitaldi ofizialean. Hogei minututan, 1200. urteko konkista izango du hizpide nagusi. Merkatal arrazoiak tarteko, gaztelarrek itsasorako bidea kontrolatzeko zuten asmoa eta horretarako, euskal lurrak konkistatu beharra agerian utziko du. Bestalde, Angel Rekalde Nabarraldeko kidearen hitzak entzungo dira irekiera ekitaldian. Hitzordua, arratsaldeko 19:00etan.



ERAKUSKETARAKO BILDU DEN IRUDIA DUZUE HAUXE.

Elkartasuna Etorkizuna jaia Baigorriin

Aurreko urteetako ohiturari eutsiz, datorren asteko igandean, irailak 24, Elkartasuna Etorkizuna jaia ospatuko da Baigorriin. Egun osoko jaialdian, zazpi herrialdeetako hainbat kultur talderen topagunea bilakatuko da herria. Usurbil, Basauri, Langraitz, Iruñea, Tuter, Urđinabe edota Baigorritik joandako kultur talde zein gainerako herritarrek kalejiraz, bazkari ederraz edota musikaz gozatu dute. Bertara joan nahi duzue-nok bidaia autobusez egin dezakezue. Irailaren 24an Elizaren ondotik goizeko 9:00etan irtengo da. Horretarako, Txiribogan izena eman dezakezue. Autobusaz gain, bazkariaren truke 18 euro ordaindu behar dira.

"Escualdunac"

Antzerkia eta bertsolaritza uztartzen dituen ikuskizuna

Ostiral honetan antzerki saio berri bat ikusteko aukera izango dugu. Honakoan, Hiru Puntu taldea izango da Sutegiko oholtza gainera igoko dena. "Escualdunac" saioa eskainiko dute eta antzezan honen egileak berak eman dizkigu emanaldiaren xehetasunak.

NOAUA! Azalduko al diguzu Escualdunac antzezanaren mamia zein den?

Antton Luku. "Escualdunac"ek antzezan baten mamia zer den dauka mamia. Hobeki errateko Tobera deitu forma herritarra du iturri. Toberak dantza, bertsolaritza eta teatroa nahasten ditu. Indarra dauka oraino triptiko honek baina ohartu ginen aspaldi molde hauek folklorizazio arriskuan dabilzala. Muga hau pasatzen dute ere maiz. Sinpleki errateko ez dira batzutan ibiltzen, ikuslea ez jo egiten, teatralitatea ihes doa eta azala baizik ez da egoten. Makina batekin egiten den bezala hasi ginen desmuntatzen eta pieza batzuk berregiten. Ziklo bat eman du. Lehena "Lurra" izan zen eta antzezele-ikusle harremana lantzen, ondotik "Beltzeria" eta "Escualdunac" lanak Tobera gaia edo edukiari lotzen zaizkie. Zein izan daiteke tobera gai? Beltzeriak kantua lantzen zuen, eta eresien kantatzeko moldea bilatzen, Escualdunac-ek bertsolaritza integratzen du. Falta zaigu sintesia, dantzarekin agertuko dena, agian 2007an.

N. Zein estilora egokitzen da Escualdunac antzezlana?

A. L. Hau ez bada herri antzerkitik abiatuz, ez da sailka errega. Irria zentroan da baina ez komedietako irri hura. Iseka, zinismoa, bigarren gradua, dramari hurbil den irria hor behar luke izan. Bigarren fase honentzat 16 testu idatziak izan ziren, ez antzerki forman baina gogoeta idurikoak. Gai bati buruz karrikan entzun zitezkeen burutazio edo hitz hartze gisa. Erranak bata bestearen kontra zihoazen ardura. Beren batasuna baitzuten bereiz atxiki nituen bi testu hauek: "etnia" (hots etnia bat girenez euskaldunok) eta "etxea" euskal etxea erakutsia baita Euskal Herrian eta orain iparraldean oraino gehiago euskaltasunaren errotzat. Bi hauek dira agertzen "Escualdunac"en jokoak jabetuak. Forma txikiak dira. Imajinatu genuen "kanpoko" bikote batzu pasatzen zirela, denok, jatetxean nehor ez delarik, trankil izateko, hautatzen dugun izkinako mahai hartan. Eta mintzatzen dira gutaz. Ikusleak solasa ebasten die. Indiskrezioa da eta nola ez baitzen errana entzuna izateko egia da. Pertsonaia hauen egia. Eta agian ere batzuetan gureztat. Bertsolariak dira euskaldunak joko horretan eta iharduki behar zaizkie hartu dituzten pindarrei.

N. Oker ez banago, emanaldi guztiak ez dira berdinak. Pasarte ezberdinen artean, bertsolariak ere aritu



ANTTON LUKU IDAZLEA DA ANTZEZLANAREN EGILEA.

ohi dira kantari. Eta emanaldi bakoitzean, bertsolariak ezberdinak dira. Usurbilen zeintzuk izango dira bertsotan arituko direnak?

A. L. Guk ez dugu prestatu antzezanaren erdia baizik, edo gutxiago. Bertsolariek egiten dute gaineratekoa. 9 aldiz emana izan da orain arte bertsolariak aldi guziz aldatuz. Gutxiago prestatu nion zeren biziki kontent baikira elkarretaratze honetaz. Helburua zen bilatzea zein zen bertsolariaren rola plazan. Nahi genion bertsolariari berea itzuli, toberan, denboran, zeukan protagonismoa. Ideia biziki interesgarriak izan dira, bertsotak hagitz gozatu ditugu. Ederra zen. Besterik gabe. Usurbilen Beñat Gaztelumendi eta Unai Agirre ari izan beharrak dira.

"Escualdunac"

Irailak 15, ostirala
22:30ean, Sutegin.
Sarrera 5 euro, Txiribogan salgai.
Antolatzailea: Nafartarrak.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozategia

LABE-GOXO

LATAILLADE

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Josune Aranburu

“Hizketan baino lehen ikasi nuen kantari”

Halaxe adierazi digu Josunek. Familiatik datorkio kanturako afizioa: “senide guztiak txikitatik izan gara abeslariak. Bazkari baten inguruan biltzen garenean, abesten amaitzen dugu”. Semea ere kantaria du, Mendeku Itxua taldeko abeslaria hain zuzen. Josune Aranburu izango da, ordea, larunbateko kantu-afaria gidatuko duena.

NOAUA! Bakarleri gisa aritzen zara, baina taldekide ere izan zara?

Josune Aranburu. Gaztetan, 14-15 urterekin gitarra hartu eta garai hartan izaten ziren jaietara bakarrik joaten nintzen. Azala musika taldean ere aritu nintzen. Donostiako taldea zen. Juan Mari Beltran zen talde burua. Bi urtez aritu nintzen abeslari gisa. Ezkontza edo bes-telako ospakizun baterako deitzen didatenean ere parte hartzen dut.

N. Oholtza gaineko emanaldiak edo kantu afariak nahiago?

J. A. Ezberdinak dira. Hau kantu-afaria izango da. Horrek esan nahi du mahai baten inguruan izango dela emanaldia. Bertaratutakoekin abestuko dut. Abesti batekin hasi, jendeak abestien letrak izango ditu eta haiek jarraitu beharko dute. Emanaldi modu desberdinak dira, baina biak politak dira.

JOSUNE ARANBURU

“Herritarrak kantu-afarira anima daitezela. Oso ondo pasako dugu”

N. Publikoa eta kantariaren artean hesi handi bat izaten da, emanaldi hasieratan bereziki. Hesi hori apurtzeko zer egin daiteke?

J.A. Norbera emanaldi hasieran tentsioz egoten da. Hori apurtzeko bi hitz esan edo jendea animatzeko publikoari zerbait esaten zaio. Horretarako trikimailuak izaten dira. Gero, emanaldiak aurrera egin ahala, jendea parte hartzea

eskatuz gero, eta abestia ezaguna denean, publikoari kanta abesten uztea. Horiek dira trikimailuak.

N. Alde horretatik kantu-afariak gertukoagoak izango dira?

J. A. Bai. Mahaian eserita, sagardo pixka bat edanda, jaten... Horrelakoetan, jendeak oso ondo erantzuten du.

N. Ahaztuko ez duzun emanaldiren bat izango duzu gogoan?

J. A. Bai. Nire lehen emanaldi serioa, eskolan nengoela, 16 urterekin, gitarra hartu berritan izan zen. Donostian, Aldapetako eskola arteko lehiaketa bat antolatu zen. Eskola bakoitzetik hiru finalista ziren. Antzoki Zaharrean izan zen finala. Bakarrik nintzen gitarrekin eta abesti bat kantatu behar zen. Lehenengo saria eman zidaten. Oso zirraragarria izan zen. Beste emanaldi oso polita, San Esteban jaietako izan zen. Bertan, Don Julian Txiki apaizak lehiaketa bat antolatu zuen jaietan. Gitar-jole dezente aritzen ginen Usurbilen. Hiru abesti kantatu behar ziren. Nire anai Anttonek “Larros bat du Usurbilek” abestiaren letra idatzi zuen, egun horri begira. Ez dakit ondo edo gaizki abestu nuen baina San Estebango guztiak txundituta gelditu ziren, adineko batzuk negarrez... Lehen saria eman nuen han ere. Bi emanaldi horiek oso gogoan ditut.

N. Santueneko emanaldiari begira, prest al duzu kantutegia?

J. A. Popurri bat prestatu behar da horrelakoetan. Bai euskaraz eta bai erdaraz. Kantu zaharrak izango dira. Batez ere, denok ezagutzen ditugun euskal kanta. Erdarazko abestiekin berdin; boleroak, mexikarrak eta Sabina tartekatuko ditut. Guztira 50 abesti bat aukeratu ditut. Alazne Lazkanok liburuxka batzuk osatu ditu abestiekin. Kopiak atera eta afarira joaten den bakoitzak bere liburuxka izango du. Jendeak musika ezagutzen du, baina letra jakin ez edo ahaztua izaten baitu. Herritarrak afaltzera anima daitezela.



JOSUNE ARANBURU, 1995
URTEAN ORIOKO BORDATXON.

Zenbat eta gehiago hobeto. Oso ondo pasako dugu.

Santueneko jaiak

Irailak 15, ostirala

16:30 Pintura Lehiaketa haurrentzat.
19:00 Sardin-jana. Ondoren buruhandiak.
21:00 Esencia Argentina ikuskizuna.
00:00 Mendeku Itxua, Ipar Haizea, Despervicio.

Irailak 16, larunbata

10:30 Haur jolasak plazan.
12:00 Buruhandiak.
14:00 Haurren bazkaria.
15:30 Haur jolasak.
16:00 Mus txapelketa.
17:30 Txokolatada plaza inguruan.
Ondoren txaranga. Jarraian, pintura lehiaketako sari banaketa.
18:30 Poniak haurrentzat.
21:30 Kantu-afaria: Josune Aranburu gitarrekin. 23:30 Larra Dj.

Irailak 17, igandea

12:00 Toka txapelketa.
13:00 Zaldi proba. Aldi berean, hamai-ketakoa jubilatuen eskutik.
14:00 Herri bazkaria.
18:00 Xexenak plazan.
19:30 Buruhandiak.
19:30 Piper dastaketa eta txaranga.
21:00 Azken traka eta sorpresa.

Larunbateko parranda alaituko du Dj Larra

Beti musika munduan aritu da. Talde batzuetatik igaro da baina Larra berak azaldu digunez, "taldeetako kide izatea zaila da, taldekide bakoitza bere bizitza egiten hasten denean, batez ere. Zaila da harreman hori mantentzea". Taldea desegin zenean, musikan bakarrik jarraitzeko zer egin pentsatzen hasi zen. "Anaiaren ezkontzara joan nintzen. Bertan Dj bat ikusi nuen bere ordenagailu eta guzti. Gauza bera egitea bururatu zitzaidan; ekipoa erosi eta hala hasi nintzen". Larunbatean, Josune Aranbururen saioa amaitutakoan, Larra Dj-ren txanda izango da.

NOAUA! Zer formatutako emanaldiak eskaintzen dituzu?

Iñaki Larrañaga. Orain arte, ezkontza gutxitan egon izan naiz eta jaietan ere gutxi. NOAUA!koa izan da izan dudana propaganda bakarra. Jaietan edo ezkontzetan eskaintzen ditut emanaldiak. Oso formatu ezberdinak izaten dira. Normalean, ezkon berriekin zer nolako musika nahi duten hitz egiten da. Kantu zehatzen batzuk nahi badituzte, horien zerrenda bat ematen dute. Jaietan, ordea, berbena eskaini behar da.

LARRA DJ

"Azken ezkontzan adibidez, bals batekin hasi eta Iron Maidenekin amaitu nuen"

N. Emanaldi bat aldeztu aurretik prestatzeak zer lan eskatzen dizu?

I. L. Adibidez, Santueneko jaien kasuan, nire emanaldiaren aurretik kantu-afaria izango da. Afari horretan adineko jendea egongo da. Lehen bi orduak haiei begira prestatuko ditut; balsak, trikitixa... Goizeko hiruretarako, aldiz, musika doinu gogoragoak tartekatu beharko ditut.

N. Beti publikoa kontuan hartu behar. Emanaldia aurrera doan bezala, inprobisatu beharko duzu, ezta?

I. L. Askotan ideia batekin hasten naiz, ordenagailua aurrean duzula. Baina emanaldiak aurrera egin ahala, hasierako ideia aldatzen doa, jendea abesti eske etortzen baita, edo jarritako abestiekin jendeak ez baitu dantza egiten. Inprobisatzea oso zaila ez denez...

N. Parranda zaleek ze abesti dituzte gustukoak?

I. L. Iaz, "reggeaton" asko eskatzen zuten, gazteek gehien bat. Azken ezkontzan adibidez, bals batekin hasi eta Iron Maidenekin amaitu nuen. Hurrengo ezkontzan, Pakito Txokolaterorekin amaitu dezaket. Denetik izaten da.

N. Urtean zehar, emankorragoa den garairik izaten al duzu?

I. L. Ni orain hasi naiz. Baina ezkontzak udaberri edo uda partean ospatzen dira gehienbat. Garai hori onena da.

N. Egiguzu aurrerapen txiki bat. Zer entzungo dugu Santuenean?

I. L. Oraindik ez dut ezer prestatu. Trikitixa asko sartuko dut eta bikoteek helduta dantzatzeko moduko abestiak tartekatuko ditut. Askotan, norbera nola dagoen ere emanaldia modu ezberdinean ikusten da. Egun horretan, kantu-afaririk nola irteten naizen, modu batera edo bestera ikusiko dut. Gero, jendeak nahi duena eskatzen duenaren arabera ere badago. Askotan nik abesti bat jartzen dut arrakastatsua izango delakoan. Minutu bat pasatzen da eta publikoa ez dela mugitzen ikusten da. Baina abestiak luze jotzen du. Abestia segituan ezin denez moztu, luze jotzen du. Taldean jotzen nuenean ere gauza bera gertatzen zen. Jendea uestez gustuko izango zuten abesti bat jotzen hasi eta gustatu ez. Gero, gutxien espero duzun abestiak izaten du arrakasta gehien.

N. Aurreikuspenik egiterik ez orduan?

I. L. Bai. Abestiak aldatzea une bateko kontua izaten da. Behin abestia jarrita, 3-4 minutu dituzu zerrendak begiratu eta konponketaren bat egin behar bada egiteko. Badaezpada, ez dut



IAZ BEZALA, AURTEN ERE AUZOKO JAIA ETAN ARITUKO DA LARRA DJ.

gehiegi programatzen.

N. Iaz ere Santueneko jaietan aritu zinen?

I. L. Iaz Santueneako jaietan Cotiren abesti batekin playback-a egin genuen. Ile ordekoa jarri eta gitarra bat eskutan hartuta Coti imitatu genuen. Nire koinata eta nire ama Paulina Rubioren egi- ten aritu ziren. Jendea asko gustatu zitzaion. Emanaldi erdian egin genuen. Horrelako parodiak egitea oso gustuko dut eta herritarrak horrelako gauzak egi- tera animatu nahi nituzke. Oso ondo pasatzen da.

Iazko jaietan

"Iaz Coti imitatu genuen. Nire koinata eta nire ama Paulina Rubioren egi- ten aritu ziren. Horrelako parodiak egitea oso gustuko dut eta herritarrak horrelako gauzak egi- tera animatu nahi nituzke"

36ko gerra Usurbilen eta inguruan

Iñaki Egaña idazleak hitzaldia eskainiko du ostegunean Sutegin

Ken Loachen "Tierra y Libertad" filma eskaini zen atzo, Sutegin. Gerra Zibilaren 70. urteurrena gogoan, Aitzaga Kultur Elkartek antolatu duen kultur asteko lehen ekitaldia izan zen. Filma Katalunian girotzen da, gerra urteetan.

1936. urtean hasi eta hiru urte geroago amaitu zen guda hura izango du ahotan, Iñaki Egaña historialariak. Ezezagunak izan daitezkeen eta herriari lotuta dauden zenbait datu eskainiko ditu Sutegin. "Gerra Zibila Usurbilen eta inguruan" izenburupean, Usurbilen gerra hark utzi zituen arrastoak hizpide izango ditu datorren ostegunean arratsaldeko 19:30etatik aurrera herriko kultur etxean. Aldameneko herrietan jazotakoaren inguruko hainbat xehetasun emango ditu hitzaldi horretan.

Historialari donostiarrek hogei liburutik gora plazaratu ditu. Sutegin jorratuko duen gaiaren inguruko bat baino gehiago, ikerlan batzuekin batera. Ez dira gutxi hainbat komunikabideetan idatzi izan dituen artikulak. Egaña Arantzadirekin elkarlanean ari da, garai hartan fusilatu zituzten gorpuak aurkitu eta berreskuratze lanetan.

Igandea, omenaldi eguna

Edozein kasutan, egun nagusia igande honetakoa izango da. Irailaren 17an, herriko gudariak omenduko dira eguerdiko 12:30ean Askatasuna plazan hasiko den ekitaldian. Duela zazpi hamarkada sufritu eta egin zutena aitortzeko unea izango da, inork dakiela aurrekaririk ez duen omenaldian. Lehenago, Bordatxo mendira irteera antolatu dute.



IRAILAREN 21EAN HURBILDUKO DA SUTEGIRA IÑAKI EGAÑA IDAZLEA, 36KO GERRARI BURUZKO HITZALDIA ESKAINTZERA.

Frontoi atzetik abiatuko den mendi martxaren amaieran, aipatutako mendian ikurriña ezarriko dute.

Hain zuzen, egun berean baina duela zazpi hamarkada, Mendizorrotz aldetik barrena sartu ziren tropa frankistak. Herriko historiarik beltzenean geratuko den data horretan, tropa frankistak Usurbilera ailegatu eta herria hartu zuten.

Joseba Tapiaren saioa

Bordatxotik jaisterakoan hasiko da Askatasuna plazako ekitaldia. Hilda zein bizirik diren gudariak oroimean izango dituzte. Senide guztiei ekitaldian parte hartzeko gonbitea luzatu zaie. Ekitaldia, dena den, irekia da eta eguerdiko 12:30ean hasiko da. Oroitarri bat ipiniko da Askatasuna plazan eta Joxemari Izeta bertsolariak eta Joseba Tapia trikitilariak girotuko dute omenaldia.

ARITZ GORRITI

Gerra Zibilaren 70. urteurrena

Irailak 17, igandea

10:00 Bordatxo mendira irteera. Bertan, ikurriña jartzea.

12:30 Gudariei omenaldia Askatasuna plazan. Partehartzaileak: Joxemari Izeta bertsolaria, Joseba Tapia trikitilaria.

Irailak 19, asteartea

21:00 "Lauxeta-Lau Haizetara" J.A. Zorrillaren filma Sutegiko Auditorioan.

Irailak 21, osteguna

19:30 "Gerra Zibila Usurbilen eta inguruan" hitzaldia Iñaki Egaña historialariaren eskutik Sutegiko Auditorioan.

Antolatzailea: Aitzaga Kultur Elkartea.

Etxetik hasi behar delako

Euskaltegian matrikulatzeko kanpaina abiarazi dute Buruntzaldeko udalek

Familiak berebiziko garrantzia du hizkuntzaren transmisioan. Horretaz jabeturik, Buruntzaldeko udalek euskararen belaunez belauneko transmisioa indartzeko lanean ari dira. Argitaratu duten eskuorriaren lemak adierazten duen bezala: "Etxetik hasi behar delako" egitasmoaren helburua euskararen familia bidezko transmisioan eragitea da.

Haurrek eskolan euskaraz ikasi arren, familiaren jokabidea eta etxeko hizkuntza oso garrantzitsuak dira hizkuntza transmititzeko.

Horregatik, Buruntzaldeko udalek eskuorri bat prestatu dute, familian, etxean, euskarari dagokionez zer egin, zer ez eta hizkuntzaren ezagutza eta erabilera hobetzeko gomendioak emateko.

Baina, noski, guraso guztiak euskararen ezagutzari dagokionez ez dira berdinak. Familia batzuetan, gurasoek

euskaraz badakite, beste batzuetan ez, eta azkenik, beste familia batzuetako gurasoetako batek badaki eta besteak ez.

Hori guztia kontuan hartuta, eskuorria ere hiru ataletan banatuta dago, atal bakoitzean familia-mota bakoitzarako gomendioak biltzeko.

Bestetik, Buruntzaldeko udalek euskaraz ikasi edo hobetu nahi duten gurasoentzako laguntza bereziak eskaintzen dituzte eta eskuorriaren atzeko aldean diru laguntza horien berri jaso da.

Usurbilgo kasuan, euskaltegiko matrikularen %80a udalaren dirulaguntza bidez jasotzeko aukera dago. Horretarako, udalak dirulaguntza-deialdia egiten duenean, epe barruan, eskaera egin behar da. Beharrezkoa da baldintza hauek betetzea:

- Usurbilen erroldatuta egotea.
- 12 urtetik beherako haurra edukitzea.
- Ikasturtean zehar %80ko asistentzia eta aprobetxamendu ona izatea.



DIPTIKO HONEN BIDEZ EMANGO DA KANPAINAREN BERRI.

Informazio gehiago:

Telefono zenbakiak: Udal Euskara Zerbitzua, 943 371999. Etumeta Euskaltegia, 943 372001.

euskara.usurbil@udal.gipuzkoa.net

DIRULAGUNTZAK

"Usurbilgo kasuan, euskaltegiko matrikularen %80a udalaren dirulaguntza bidez jasotzeko aukera dago"

Mus txapelketa ikusgarria sagardoaren lurraldean

Urtero bezala, iritsi da sagar berriaren uzta garaia gure inguruko baserrietara. Sagarrondoak gogor jo ondoren, sagarrak bildu eta lehenengo sagar zukuak ateratzeko garaia. Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkartek harrera egin nahi dio sagar uzta berriari Sagardoaren Lurraldeko Lehen Mus Txapelketa antolatuz. Buruntzaldeko herri guztiak sagardo-

aren eta musaren inguruan biltzeko asmoz.

Hala, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Urnieta, Usurbil eta Andoaingo taberna desberdinetan jokatu da txapelketa eta hauetatik irabazle ateratzen diren artean, finalerako ligaxka eta final handia Usurbilgo Saizar sagardotegian jokatu dira.

Gorde ezazu zure txokoa txapelketa

handirako irailaren 25a baino lehen, Ardebeltz garagardotegian edota Txiriboga tabernan.

Txapelketa urriaren 3an hasiko da eta final handia berriz azaroaren 11n jokatu da Saizarrenean.

Sari nagusia, 3.000 euro

Sari ikusgarriak ordagoaren zain dira. Bikote irabazleak 3.000 euro, txapela eta bazkaria jasoko du.

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL



ITURGINTZA

JOSEBA ARANGUREN

☎ 943 830 072
☎ 659 883 912

Hitz-gegidunak !!

	Pilota jokaldia	▼		Eraman-garri	▼	Pl., jaurti-gai mota	▼	Gipuzkoa-ko herria	▼	Libreak	
	Antzekoa, berdina			Zoladura		Serorak		Akuri			
	➤			▼		▼		▼			▼
	* IZENA	➤									
	Herri handi										
Protestante kalbindar	▼	Haragitara-ko abereak	➤ ▼								
Bizia dutenak		* DEITURA									
➤		▼									
								Infusio mota	➤		
								Oso-oso garbi			
Nahi	➤				Gironako autoetan	➤		Barazki hostotsua	➤ ▼		
Funts					Kezka			Non atzizkia			
➤				Bost bider bi	➤ ▼			▼		Potasioa	➤
				Joan hadi!						Portu	
Neona	➤		Hangoa-renak	➤ ▼						▼	Jainko egiptoarra
Zubereraz, lotsatia			Musika nota								
➤			▼					Jatorri atzizkia	➤		▼
								Uranioa			
Zubereraz, geldialdia, pausaldia	➤				Garbitua	➤		▼			

Sudoku !!

3			9			4		
9			5	2				
	1		6			9		
			7				8	
5	4						3	9
	6				4			
		9			2		7	
				7	6			8
		5			9			6

9 x 9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ezin duzula errepikatu errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3 x 3-ko laukian ere.

Erreboteak bizirik jarraitzen du Zubietan

Kirolezale gehienak Kontxako estropadako 2. jardunaldiari begira zeuden bitartean, Zubietako Pilota Elkarteko eta Donibane Lohitzuneko Luzeaz Gain taldeko pilotariak urteetan zehar pilota-jokoen artean erregetzat hartua izan den erreboteko partida jokatu zuten Zubietako errebote plazan. Ikusle gutxi ziren bertan, bakan batzuk egia esan, baina bi taldeek erakustaldi polita eman zuten Endika Abril txapelketako 3. jardunaldiari zegokion neurketan.

Errebotea galzorian dagoela entzun izan dugu behin eta berriz azken urte hauetan. Zubietan, behintzat, bizirik mantentzen dute eta horren lekuko izan zen pasa den igandean bertako plazan jokatu zuten norgehiagoka bikaina. Zubietarrak eta Donibane Lohitzundarrak izan ziren aurrez aurre 11.00etan hasita Endika Abril txapelketako jardunaldi berri bateko partidaren eta luze aritu ziren Zubietako errebote plazan.

Luzeaz Gazte taldea zen neurketa irabazteko faborito nagusia. Iazko edizioan garaipena lortu zuten eta aurtengo Frantziako Errebote txapelketan ere beraiek izan dira nagusi Ustaritzeko Kapito Harri taldeari 13 eta 12 irabazi ostean. Zubietako taldeak, aldiz, ez zuen ezer jokoa. Txapelketako lehenengo bi errebote partidak galduta finalerdietara sailkatzeko aukerarik gabe zeuden, baina azkenean neurketa galdu bazuten ere iparraldekoek izerdi dezente atera behar izan zuten hauek gainditzeko.

Josu, Imanol eta Joxe Aizpurua anaiek, Kerman Errekondok eta Jon Huizik osatu zuten tamaina desberdineko zumitzeko laxoak eskuetan hartuta Zubietako taldea. Pilotariak aurrez aurre kokatuta, batzuk sake-gunean, besteak erresto-gunean, pilota plazaren alde batetik bestera gozo ibili zuten denbora luzez bakoitzak bere kintzeak egin eta jokoa osatu nahian.

Norgehiagokaren hasieran zubietarrak izan ziren nagusi. Alde handiegirik lortzeko gaitasunik izan ez bazuten ere,



DONIBANE LOHITZUNEKO TALDEA NAGUSITU ZEN.

joko bat eta biko aldeaz aurretik izan ziren partida erdia baino gehiagora arte. Sakea zutenean jokoa eskuratzen zuten, baina Donibane Lohitzuneko pilotariak ere ez ziren atzera gelditzen. Bi berdinketen ostean zubietarrak 8 eta 6 aurreratu ziren. Hurrengo jokoa, aldiz, erabakiorra izan zen. Zubietarrek 9. jokoa lortzeko aukera izan zuten, baina azkenean Luzeaz Gazte taldeak eskuratu zuen jokoa eta hortik aurrera nagusi izan ziren.

Partida luzea jokatu zuten bi taldeek

Izan ere, hurrengo joko guztiak egin zituzten Donibane Lohitzuneko jokalariek, guztira zazpi joko jarraian, eta azkenean 13 eta 8 nagusitu ziren. Luzea izan zen norgehiagoka bi ordu baino gehiagokoa, eta arrazoi zuen "errebotea ikustera garai bateko filosofiarekin etorri behar dela" esan zuenak. Partida guztiak, 13 jokotara jokatzen dira eta ezin da jakin zenbat denbora iraungo duen partida bakoitzak.

Honela bada, hasierako ligaxkan jokatutako hiru norgehiagokak galdu ondoren Endika Abril errebote txapelketaren 43. ediziotik kanpo gelditu da Zubietako Pilota Elkarteko taldea. Horrez gain, hemendik aurrera, ziurre-

nik, Zubietako errebote plazan ez da aurtengo edizio honetako partida gehiago ikusteko aukerarik izango. Finala bertan izatekoa bazen ere, badirudi azken partida hori ez dela Zubietan jokatuko.

Herriko neskak irabazle lehen neurketan

Usurbil Futbol Taldeko emakumezkoen taldeak ondo ekin dio 2006-2007 denboraldiari. Pasa den larunbatean jokatu zuten lehen partida eta 2 eta 0 irabazi zuten Amaia Añorga eta Ainhoa Otxagabiaren golekina Groseko K.E. taldearen aurka Lasarte-Oriako Michelin futbol zelaian. Asteburu honetan Euskalduna taldearen aurka jokatuko dute Andoainen. Bestalde, 1. Errejonial mailako taldeak larunbatean jokatuko du estraineko neurketa. Sanpedrotarra taldearen aurka jokatuko dute Trintxerpeko futbol zelaian.

Deialdia!

Eskultura batekin apaindu nahi da Eguzkitza auzoa

Eguzkitzako lanak laster amaituko dira. Lan zailenak eginak daude eta orain auzoa edertzea falta da: farolak, zuhaitzak, eserlekuak... Baina ez dira Eguzkitzako urbanizazio berriak izango dituen apaingarri bakanak izango. Udalak eskultura bat jarri nahi du, farmazia pareko plazarxoan hain zuzen. Zein eskultura jarri erabakitzeko, udalak deialdi irekia egin berri du. Deialdi honen arabera, eskultura gai honetara egokitu beharko da: Usurbil eta sagardoa. Sagardo Egunak 25 urte bete dituen honetan, sagardoaren munduarekin lotu nahi da auzoa apainduko duen eskultura.

Baldintzak hauexek izango dira:

-Eskultura-proposamenak iturri bat edo ura izango du elementu finko bezala.

-Harrizkoa izan beharko du eskultura.

-Eskultura egin eta kokatzeko 12.000eur oko aurrekontura mugatu beharko dira (BEZ barne) deialdi honetara aurkezten diren proposamenak.

-Bertso bat edo esaldi bat jartzeko tokia izan behar du eskulturak.

Ekimen honetan parte hartu nahi duen orok, hilabete bukaerarako make-ta bat aurkeztu beharko du udalean.

Informazio gehiago udaletxean, 943 37 19 51 telefono zenbakian.



Eguneko goardiako farmaziak

Irailak 14, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 15, ostirala
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 16, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 17, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 18, astelehena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 19, asteartea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Irailak 20, asteazkena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Irailak 21, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 22, ostirala
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Irailak 23, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Irailak 24, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55*/9:30(T)/13:15(T)/
14:35*(T)/19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaratik)
7:15*/9:00/12:45(T)/
13:45*/18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T)/12:45/
15:15(T)/21:35(T)

(Gipuzkoa plazaratik)
12:15(T)/14:30(T)/21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T)/13:30(T)/15:30(T)/
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaratik)
11:00(T)/13:00(T)/15:00(T)/
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Zendoia

Enle Nagusia 3b - 943 37 40 71

txirriStra

KONTSEJU ZAHARRA 13
943 360 460

pintxoak
ogitartekoak
platea konbinatuak

TABERNA

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA

943 365 095
607 068 111

5012 ARGI ETXEA 37 KALEZAR

Its r tz

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

J.ORBEGOZO

ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.BK 943372937 • 659602789

JOSUE
ARANZAZISTROKI

IGELTSEKITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enea, 6 Kalegar
Telf: 606 37 21 05

Agenda !!

Irailak 14, osteguna

- Nola aurre egin artikulazioen higadura-
ri, hitzaldia Sutegin. 17:00etan.
- "Tierra y libertad" filma, 21:00etan
Sutegin.

Irailak 15 ostirala

- "Euscaldunac" antzezlan,
22:30ean Sutegin.

Irailak 15/ irailak 17

- Santueneko jaia.

Irailak 17 igandea

- Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia.
9:00etan frontoitik abiatuta.
- 10:00etan ibilaldia Bordatxo mendira
ikurriña jartzera. 12:30ean gudariei
omenaldia Askatasuna plazan (informa-
zio gehiago, 12. orrialdean).

Soluzioak !!

★	D	★	J	★	B	★	G	★
B	E	Z	A	L	A	K	O	A
★	J	O	S	E	L	U	I	S
★	H	★	H	A	R	A	K	A
B	I	Z	I	D	U	N	A	K
★	G	U	R	A	★	G	I	★
M	A	M	I	★	H	A	M	A
★	N	E	★	H	A	R	E	N
L	O	T	S	O	R	R	A	★
★	T	A	I	A	★	I	K	U

Hitz geizidunak, Jose Luis Zumeta

3	5	6	9	8	7	4	1	2
9	7	4	5	2	1	8	6	3
2	1	8	6	4	3	9	5	7
1	9	2	7	3	5	6	8	4
5	4	7	2	6	8	1	3	9
8	6	3	1	9	4	7	2	5
6	8	9	4	5	2	3	7	1
4	2	1	3	7	6	5	9	8
7	3	5	8	1	9	2	4	6

Sudoku

Egin kontu !!

Zirriborro plastika tailerreko ikastaroak hastera doaz

Aurten ere eskuak astintzeko Agogoarekin bazaude, Zirri-
borro plastika tailerrean zure zain
daude. Ikastaroak umeei (4 urtetik
gora) eta helduei zuzenduta daude
eta pinturaz gain beste zenbait arte-
lan ere landuko dira (buztina,
kamisetak diseinatu, matxe-papera,
maskarak...).

Ordutegia eta egunak zehazteko
bilera bat egingo da datorren iraila-
ren 22an, arratsaldeko 19:00etan
Udarregi ikastolan. Informazio
gehiago 609413883 telefono zen-
bakian (Susana).



Egin kontu !!

56ko kintoen afaria Olarrondon

Irailaren 30ean arratsaldeko
12:30ean, 56ko kintoen afaria
egingo da Olarrondo jatetxean,
honako menuarekin:

Entsalada epela, zapo eta langos-
tinoekin; porru eta ganbazo hojal-
drea; zapoa plantxan, perretxiku
salteatuekin, pikilo saltsa eta txipi-
roi tintarekin; solomiloa plantxan,
foie-gras eta patata purearekin.

Edaria: Rioja Vega krz., gorria,

txuria, sagardoa, txakolina eta
kaba. Etxeko postrea eta kafea.
Prezioa 50 euro.

Irailaren 15ean,
izena emateko azken eguna

Izena eman nahi duenak hona-
ko kontu honetan sartu beharko
du dirua: 2101 0069 11
0125485359. Izena emateko
azken eguna: irailak 15 ostirala.

ERRAZKIN
IGELTSERITZA
OROKORRA
kale Nagusia, 1
Tel./Faxa: 943 365 125
Móvil: 629 420 565 - 649 435 470

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
PSU
943 371 954
UGALDEA POL.36.2·USURBIL

ETXEBIZITZA

- Usurbilen logela bat alokatzen da. Interesatuak deitu: 679185102.
- Usurbilen hiru logelako etxe bat alokatzen da. Abala eskatuko da. 649261704.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.
- Neska euskalduna. Pisu konpartitu batean gela alokatuko nuke Usurbilen, edo, modu onean egonez gero pisua alokatuko nuke. Arratsaldean deitu, 14:00etatik aurrera. Tel: 627285904

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Galtzaragañan 18,95 metro karratuko garaje itxia salgai. Interesatuak deitu 943361219 telefonora.
- Garaje itxita salgai, 18 m2. Merkea. Puntapax bidean. Telefono zenbakia: 610 29 18 64 (Carlos).
- 49 zm-tako Honada moto bat daukat salgai. Kondizio onetan eta modu onean. Interesatuak deitu 943364554 telefonora
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Esperientzia duen neska umeak zaintzeko prest. Edozein ordutan lan egiteko. Telefono zenbakia: 660 041 361.
- Emakume bat eskaintzen da 11:00etatik 13:00era etxeko lanak egiteko edota pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 659 89 90 40 / 943 365 737.
- Udan umeak zaintzeko prest nago. Telefonoa: 687 651 605.
- 17 urteko mutil bat naiz eta ekainetik iraileira bitartean Usurbil eta inguruetan gustora lan egingo nuke. Eskaintzen bat baduzu deitu 650491552 telefono zenbakira.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat

eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.

- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakia: 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Olarrondo jatetxean astebukaeratan barran eta komedorean lan egiteko pertsona bat behar da. Deitu 943360376 telefonora.
- Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. Lau orduz, goizeko 7:30etik 11:30era. Telefono zenbakia: 943 37 06 91 (ilunabarrean deitu).
- Irailetik aurrera pertsona bat behar dugu Zubietan haur bat zaindu eta goizez etxeko lanak egiteko. 943 36 71 29 / 660 779 160.
- Jatetxe batean garbitasun lanak egiteko emakume bat behar dugu. Interesatuak deitu 943362117 telefonora.
- Arratsaldean etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabilta 645403905.
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. 661972670.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Snow egiteko tabla bat fijasioekin daukat salgai. 679185102
- Salgai paketeriako kamioneta 30.000km (10 hilabete). Tel: 666 871 914.
- Eskopeta salgai, Beretta Saut 303 modelo, 6 puntuko txoke mugikorra. Oso egoera onean. Tel: 607457004, Dani.
- Larunbatean Puntapax 22-24 artean dordoka bat agertu zen. Udaltzaingoak jaso eta animalien babeslekura eraman du.
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazunarekin, gustora hartuko genuke. 943360321.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tf. 605 72 48 24

JAIOTAKOAK

- Maria Davila Zaldua Abuztuaren 17an.
- Manex Bengoetxea Goizueta Abuztuaren 21ean.
- Lucia Rodriguez Roman Irailaren 3an.

HILDAKOAK

- Josefa Alberdi Aldalur Irailaren 7an hil zen 82 urterekin. Kalezar.



Oharrak,
Txerrimunik ordainetan
doaneko atalak dira

Datorren alea: irailak 22.

Zorion-agurrak irailaren 18a baino lehen ekarri edo bidali.

erredakzioa@noaua.com

NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20170 Usurbil

Telefono interesgarriak

- Udala.....943 37 19 51
- Udaltzaingoa.....943 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak943 37 01 48
- Eusko Tren.....943 47 09 76
- Anbulategia..... 943 36 20 13
- Udarregi Ikastola..... 943 36 12 16
- Udarregi (Agerialde).....943 36 38 95
- Haur Eskola (Kalezar).....943 37 40 61
- Oiarde kiroldegia.....943 37 24 98
- Zumarte943 37 15 94
- Etumeta euskaltegia943 37 20 01
- Taxi geltokia.....943 36 21 78
- D.Y.A.943 46 46 22
- Gure Pakea.....943 37 32 28
- Gure Elkartea.....943 37 17 51
- Arrate Egoitza.....943 36 63 40
- Bake epaitegia.....943 37 23 36
- Oa farmazia.....943 37 60 76
- Iturralde farmazia.....943 36 33 95
- Zubietako Batzarra.....943 37 20 77
- Argindarra (Iberduero).....943 47 09 76
- NOAUA! aldizkaria.....943 36 03 21
- Ertzaintza.....112
- Suhiltzaileak.....112
- Larrialdiak.....112
- Anbulantziak.....112

www.noaua.com

Albisteak edizio jarraituan

Zorion-agurren tartea

Eztabaida foroak

Agenda



Zerbitzuak

Eguraldia

Aldizkaria, on line

Informazioa eskura

Usurbil ezagutu: Usurbil buruzko informazioa zure eskura

Zerbitzuak: goardiako farmazien egutegia, garraio publikoak, telefono eta helbide interesgarriak

Jaiak iruditan: Usurbilgo jai guztiak argazkitan.

Partehartzailea

Edonor izan daiteke berriemaile. Albisteak sarean ipintzeko prestatu dugu webgunea.
E-posta bat idaztea bezain erraza da.

Aldizkaria on line

2003ko irailetik honako NOAUA! aldizkari denak sarean daude.

Klik egin "Jaso aldizkaria zure posta elektronikoan" atalean, hutsuneak bete eta aurrerantzean
etxean baino lehen jasoko duzu aldizkariaren on line bertsioa zure posta elektronikoan.

Usurbildarrentzat eginiko webgunea

JOSE AIZPURUA
UNIANUE

TELATUAK • FATXADAK
Pinturak, karga, 1-54, Lizarri-Olita
943 36 14 83
Ouzhar karga 24, Lizarri
943 69 68 52

URDANTZI

943 32 72 64
649 43 54 75
649 43 54 76

ERRAZKIN

943 372 679
943 365 125
629 420 565
649 435 470
urki.mitxel@euskaitel.net

Josue
Aranzazistroki

943 360 550
606 372 105
Juan Jose Arana 1, Nizkor

Antonio
URRIZOLA

Tel.: 943 376 415
Faxa: 943 360 510
Astoszuain Industrialdia, 3

BEREZIARTUA
S.L

egurra eta
egur-aluminiozko
leioak - eskailerak
Aginaga 943 371 571

BARRENETXE

Salsamendi Arregi, Imanol
Tel. 943 362 664
Faxa 943 374 002
Barren Elxe Kalea
ZUBIETA

Javier
Orbegozo

Gasa-berokuntza
659 602 789
Enreka Txiki 13, Bask

Jose txo
ikatzeta

687 951 225

Lataillade

gasa, berogintza
klimatizazioak eta
mantenimendua
609 888 021

portularrume

Bainuko altzairuak
Manparak
943 364 637

JOSEBA
ARANGUREN

943 830 072
659 883 912

andoni
marcoak

605 702 517
Arrantzale p. 8-20

fernando

PINTURAK
enpapelaketak
lurzoruak...
943 366 014

IZAGUIRRE

943 365 095
609 068 111
Goiz 424 ETXEA 37
KALEZAR

ARGILAN

Jose Luis Borda Zugasti
Industria instalazioak korporatibak
943 361 380
629 272 859
Borda Henri 5 behe

gremioen gida

IGELTSERITZA

AROSTEGIAK

ITURGINTZA

PINTURAK

ELEKTRIZITATEA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaia.com